



Azken eguneratzea: 2013/11/18

IXA Taldeak jaso du Anton Abbadia saria

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen normalizazioaren alde egindako lana aitortu dio



UPV/EHUko Informatika Fakultateko IXA taldearentza 2013 urtea bikaina izaten ari da. Izan ere, ikerketa talde

honek 25 urte bete ditu aurten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Anton Abbadia saria eman dio euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik. Taldeak 1987 urteaz geroztik hizkuntzaren tratamendu automatikoan lan egiten du.

Xabier Artola IXA taldekidearen esanetan "Gipuzkoako Diputazioak ematen duen Anton Abbadia saria jasoko dugula-eta, zer esan! Ba, hasteko, ohore handia dela talde osoarentzat, egungo lankide nahiz aurreko urteetan taldetik pasatu diren guztientzat, taldearen 25. urteurrena ospatzen ari garela, gainera. Bestetik, euskararen normalizazioaren aldeko gure ekarpenaren aitortza modukoa dela sari hori, eta poztasuna ez ezik harrotasuna ere sentitzen dugula, taldearen helburuetako bat baita, inondik ere, geure hizkuntzan bizi ahal izateko, euskarak teknologiaren aldetik behar dituen oinarriak eta azpiegitura eratzen laguntzea. Edozein sari jasotakoan esan ohi dena ere esan behar, jakina, halaxe baita, izan ere: aurrera egiteko animoak ematen dituela, eta ahalegin

guztiak egingo ditugula aurrerantzean ere taldeak jarrai dezan euskal jendartearentzat baliagarriak diren tresnak eta aplikazioak sortzen eta garatzen".

Ikerkuntza talde honetan 32 informatikarik, zortzi hizkuntzalarik, ikerkuntzako bi teknikarik eta administrari laguntzaile batek parte hartzen dute. Halaber, 60tik gorako proiektu finantzatu, 20tik gorako tresna eta aplikazio, 23 tesi, eta 300 bat artikulu burutu dituzte.

Abbadia saria abenduaren 2an emango du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldien barruan. IXA Taldeak Zuhar Iruretagoiena artistak egindako obra bat ez ezik 6.000 euro jasoko ditu.

UPV/EHUko KOMUNIKAZIO BULEGOAK
editatutako informazioa

[Erabilerraztasuna](#)

[Lege oharra](#)

[UPV/EHU](#)

[Harremanetarako](#)

[Web mapa](#)

[Laguntza](#)